



Jone bakarlari anoetarraren lehendabiziko diskoa, kalean

«**ILUSIOA**» ▶ Atzo aurkeztu zuen lana, Donostian;
Bonberenea Ekintzak zigiluarekin grabatu du ▶ 4



Jone anoetarrak abesti bat eskaini zuen, atzo, diskoaren aurkezpen ekitaldian. I. GARCIA



N. LATABURU


Ereindakoa biltzeko garaia iritsi da jada

TOLOSA ▶ Tolosako Babarrunaren lehen aleak
bildu zituzten atzo hainbat ikasle, politikari
eta sukaldarik, Santa Lutxi Berri baserrian ▶ 2

TOLOSA ▶

Balkoietan zintzilik jartzeko kartelak

Gerontologikoaren
aldekoen kanpaina ▶ 3



I. TERRADILLOS

TOLOSA ▶

Etxebizitza lortzeko irrikaz

Babes ofizialeko
44 etxebizitza
zozketatu dituzte ▶ 6

HELENA ORCOYEN ▶ SOPRANOA

«Gaurkoa berezia da, gertukoek nire lana ezagutuko dutelako»

Kontzertu lirikoa eskainiko du gaur
ibartarrak San Bartolome elizan ▶ 7

TOLOSAKO BABARRUNA ▶

Maiatzean ereindakoak biltzera

Atzo bildu zituzten Santa Lutxi Berri baserrian lehen babarrun aleak ikasle, politikari eta hainbat sukaldarik

NOELIA LATABURU

Apirilean, lurrak txukundu, ereiteko prest izan daitezten, eta San Isidro Egunean, maiatzean, hauek erein. Bost hilabete inguru irauten duen prozesuaren ostean biltzen da uzta. Tolosarentzat ikur bilakatu den jakia lortzeko.

Atzo ailegatu zitzaizen, hain zuzen, Santa Lutxi Berri baserriko Juan Joxe Salaberriaren lursailetan landareek emandako lehen babarrun aleak biltzeko garaia. Eta horrelaxe egin zuten, azaroaren 16tik 20ra egingo duten Babarrun Astearen aurrerapen gisa, Jokin Bil-

darratz Tolosako alkateak, Joxemi Gomez Elozegi Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu batzordeko lehendakariak, Elena Arzak, Igor Zalakain, Roberto Ruiz, Peio Doyharzabal, Matias Gorrotxategi, Pedro Ruiz, Angel Oruesagasti, Felix Garrido, Juanjo Pascual eta Mikel Zuaznabar sukaldariek eta Samaniego ikastetxeko ikasleek, besteak beste. 15.000 kilo inguru biltzea espero dute, Iradiren esanetan. Udaberria lehorra izan den arren «itxura ederra dute lehen aleek, kolore argiarekin eta osoak». Gure plateretan «goxo-goxo» dastatzeko prest izango dira, beraz.



Tolosaldeko hainbat sukaldarik ere parte hartu zuten bilketan; argazkian, Elena Arzak. NOELIA LATABURU

MARI KARMEN IRADI ▶ TOLOSAKO BABARRUNAREN ELKARTEKO ZUZENDARIA

«Babarrunarentzat udaberria lehorra izan dela da aurtengo akatsa»

Iaz ekoizleen lehiaketako irabazlea izan zen Iradi. Atzokoan lehen babarrun uzta biltzen aritu zen, ume eta sukaldariek batera.

Zer moduzko uzta da aurtengo?

Aurreko urtekoaren antzekoa izango da. Udaberria lehorra izan zen, eta hori izango da akatsik handiena; gainera, udazkeneko euririk eta hotzak ez du lagunduko.

Zer baldintza behar dira,



N. LATABURU

bada, babarrun ona jasotzeko?

Udaberri euritsua eta epela izatea, ondo hazi daitezten.

Zein da prozesua?

Apirilean lurra behar bezala prestatu, eta maiatzean, San Isidron, hasten gara; gero hazia egiten hasten da. Landareak ura eta hezetasuna behar du; irailaren erdialdean biltzen hasten garen arte, belar txarrak eta lurra garbitzen dizkiogu. ◀



Samaniego ikastetxeko ikasleek babarrunak bildu zituzten. N. L.

hitza

lagunen txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratuko dute; deitu 943 30 43 46 telefono zenbakira

Egin zaitez harpidedun!

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honekin
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶

Balkoietan zintzilikatzeko kartelen kanpaina, orain

Gerontologikoaren aldekoek jarri dute abian

I. ETXEBESTE

«Tolosako Gerontologikoaren itxierak sortutako arazoaren aurrean, azken sei hilabete hauetan udal ordezkari politikoak irtenbide egoki bat emateko gai izan ez direla ikusita, kanpaina berria jarri dugu abian: balkoietan zintzilikatzeko kartelak sortu ditugu». Gisa horretara egin dute Tolosako Gerontologikoaren aldeko plataformako kideek ekimen berriaren aurkezpena.

Zumarragan, Lazkaon, Zumaiian, Donostian eta Azpeitian gertatutakoa gogoan, egoera larriagotzerik nahi ez dutela jakinarazi dute *Eta orain zer?* plataformako kideek, eta haxe esan dute, horren harira: «Gure ordezkari politikoak penatuta eta gailenduta egotetik zoriontsu eta errebelde egotera pasatu daitezten nahi dugu».

Hala bada, plataformaren leloa biltzen duen kartelak etxebizitzetako balkoietan zintzilikatzeko kanpainari ekitea era-



Tolosako Gerontologikoaren itxiera salatzen duen ekimen berria jarri dute abian plataformako kideek. HITZA

baki dute. Kartel horiek jarrita, bere garaian dendariak eta tabernariak bere lokaletako leihoetan eta ateetan jarritako mezua helarazten jarraitzea nahi dute ekimenaren sustatzaileek. Arazoa hasi zenean

herriko dendetako eta tabernetako kideen laguntza izan zuten plataformako kideek, eta haiak orain arte egindakoa eskertu nahi dute, ildo horretatik jarrai dezaten eskatuz.

«Kanpaina honetan lagundu

nahi duten guztiei bihar, larunbata, 11:00etatik 14:00etara Trianguloan jarriko ditugun bi mahaietan kartelak banatuko ditugula jakinarazi nahi diegu», adierazi dute Gerontologikoaren aldekoek.

KOMUNIKABIDEAK ▶

‘Gaztetxulo’-k 5 urte

Gaztetxulo Busa ekimena jarri du abian; Tolosan izango da

IRATXE ETXEBESTE

Gaztetxulo-k bost urte bete-tzen ditu urrian, eta hori ospatzeko *Gaztetxulo Busa* jarri dute abian arduradunek. Zeharkaldi horretan bost geldialdi egingo dituzte, eta geldialdi bakoitzean tokian tokiko ikastetxe batean solasaldi bana ere antolatu dute. «Ikastetxe horietako ikasleek euskal kulturaren egoera eta xehetasunak ezagutzeko aukera izango dute mintzaldi hauen bitartez, eta alor bakoitzeko protagonisten iritziak trukatzeko parada ere izango dute», adierazi dute ekimenaren sustatzaileek.

«Euskarazko kultura gaztearen diagnostia egitea» omen da, antolatzaileen esanetan, solasaldi horien xedea. Urriaren 17an Donostiatik abiatu zen *Gaztetxulo Busa*, eta *K be-laulandia* izan zuten hizpide or-



Gaztetxulo Busa Trianguloan geratuko da gaur arratsaldean. HITZA

duan. Baionan *Bertsolaritza vs. Rapaizan* zen solasaldiaren ardatz hurrengo egunean, eta handik Zornotzara egin zuen ekimenak. Bizkaiko herri horretan *Gazteak eta fikzioa* izeneko solasaldia egin zuten herenegun, eta atzo Gasteizen izan zen *Gaztetxulo Busa Antzerki gaztea-ri buruz* aritzeko.

Geldialdi horien ostean, Iruñetik irtengo da gaur goizean autobusa, baina aurretik *Nafarroako kultur sorkuntza* izan-

go dute hizpide hiriburuan Gorka Urbizu, Estanga, Joana Lasheras eta Hiart Leitzarekin.

«Solasaldietarako geldialdi nagusiez gain, beste hainbat herri eta txokotan ere *Gaztetxulo Busa* ikusteko aukera izango da, Euskal Herriko gazte guztiekin egotea baita gure asmoa». Iruñetik Lekunberrira, eta handik Tolosara joango da gaurkoan autobusa Leitzatik barrena. Arratsaldean geratuko da Trianguloan.

GIZARTEA ▶

Tolosa 750 Fundazioaren egutegian irtengo direnak

Tolargi eta Tolosa Gasa-k antolatuta, argazki lehiaketan saria jaso dutenak izango dira

I. ETXEBESTE

Tolosak bere 750. urteurrenaren izango duen egutegiko argazkiak Tolargi eta Tolosa Gasa-ren argazki lehiaketan sarituko izango direla jakinarazi dute Tolosa 750. Urteurrena Fundazioko arduradunek. Bada lehiaketa horretako epaia hauxe izan da: lehenengo saria —alegia, egutegiko portadan berak egindako argazkia ateratzea eta urtebeteko argia eta gasa doan— Miguel Cortesi eman diote, eta 12 hilabetetako saridunak —horietatik seik urtebeteko argia doan izango dute, eta gainerako seiek urtebeteko gasa doan— Igor Garmendia, Iker Gereñu, Xabier Ubeda, Miguel Uranga, Simon Arri-

gain, Juanma Gofii, Elixabete Garmendia, Anjel Alonso, Diego Consuegra, Josetxo Gabarain, Pedro Morales eta Leire Arreseigor izan dira.

Antolatzaileek «guztiz arrakastatsutzab» jo dute lehiaketa. Guztira, 1.200 argazki inguru jaso dituzte, era guztietako formatuetan —paperean nahiz digitalean—, eta batzubesetako kalitateak harridura ere sortu omen die Tolosa 750. Urteurrena Fundaziokoek.

Bestalde, hauxe adierazi dute: «2006a urte berezia izanik, herriaren sorreraren 750. urteurrena ospatuko dena, hain zuzen, ohiko hormako egutegiaz gain murala eta eskuzkoa ere argitaratuko ditugu, eta ohiko eran banatu. Izango duzue horren berri».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ANOETA ▶ MUSIKA

Lehen diskoa kalean du Jone bakarlariak

Bonberenea Ekintzak zigiluan grabatu du sei abestiko CDa anoetar gazteak

IMANOL GARCIA

«19 urte ditut, eta aitortu behar dut txikitatik gustatu izan zaidala musika». Hitz horiekin aurkeztu zuen bere burua Jone bakarlari anoetarrak. Koldo Mitxelena zen adierazpenak egindako lekua eta grabatu berri duen bere lehen diskoa zen arrazoia. Bonberenea Ekintzak zigiluaren bitartez argitaratu du 6 abestiko CDa. Atzoko aurkezpenean Jon Ander Ubeda musikari tolosarra izan zuen alboan. «Pixkanaka nire kantutak egiten joan naiz eta kontzertu batzuk ematen», azaldu zuen Jonek.

Iaz, Tolosaldeko beste hainbat abeslari eta taldeekin batera, *Martxaundi 4* izeneko diskoan parte hartu zuen. Jon Ander Ubedaren deia jaso zuen eta diskoa grabatu nahiko zuen galdetuz. «Izugarritzko ilusioa egin zidan», zioen anoetarrak. Diskoaren grabaketan ondoan izan ditu musikari ezagunak: Karlos Aranzegi (bateria), Fran Iturbe (gitarra) eta Jon Ander

Ubeda (baxua), Karlos Osinaga izan da grabazioaren ardura-duna. «Emaizarekin oso gustura gelditu naiz. Oso esperientzia positiboa izan da, eta asko ikasi dut horrelako musikariek», zehaztu zuen bakarlari gazteak.

Denetik gustatzen zaio entzutea Joneri, baina abestiak egiterakoan «asko gustatzen zaizkit Sorkun, Anari, Labrit... Bakarlarietan fijatzen naiz». Esandako guztiak emakumezkoak direla zehazterakoan, «ahotsaren aukerak hortik ikusten ditut, haiek egiten dituzten gauzak egiteko aukera ikusten dut emakumezkoen ahotsetan», azaldu zuen.

Abestien letra zein musika bakarlari anoetarrak berak konposatu ditu. «Gai ezberdinak hartzen saiatu naiz. Amodiozkoak daude, konpainia txarraren ingurukoak, oraina behar bezala aprobetxatzeari buruzkoak...».

Egun disko bat grabatzeak suposatzen duen zailtasunaz galdetzean, Jon Ander Ubedak



Jone eta Jon Ander Ubeda, atzoko prentsaurrekoan. I. GARCIA

JONE
BAKARLARIA

«Emaizarekin oso gustura gelditu naiz. Oso esperientzia positiboa izan da eta asko ikasi dut»

JON ANDER UBEDA
MUSIKARIA

«Badaude zenbait altxor txiki, eta Jone da horietako bat, eta ez dakit zeren begira dauden disketeak»

hartu zuen hitza lehenengo: «Gauza onak eta ez hain onak daude merkatu honetan. Harrantzen nau badaudela zenbait altxor txiki, eta nire ustez Jone da horietako bat, eta ez dakit zeren begira dauden disketeak». Eta gaineratu zuen: «Bonberenea Ekintzak bezalako zigiluek hazia eraiten dute, eta lehenengo pauso hori bideratu. Alde horretatik ekimen hauek positiboak dira».

Bere aldetik, Jonek «zinez» eskertu zuen Bonbereneak emandako aukera eta laguntza.

Hainbat emanaldi egingo ditu datozen asteetan anoetar gazteak, abesti berriak ezagutaratzeko. Jon Mujika (bateria) eta Iban Alzate (baxua) ibartarrekin osatuko du zuzeneko taldea. Hurrengo kontzertua Bonberenean bertan izango da, azaroaren 5ean.

EHNA ▶

Asteburuan EHNA tramitatzeko aukera izango da

Asteburu honetan EHNA tramitatzeko aukera izango da Tolosaldeko hainbat herritan. Villabonan, bihar, 18:00etatik 20:00etara egongo dira Kultur Etxean; etzi, leku berean, 12:00etatik 14:00etara. Zizurkilen, udal-etxean egin ahalko da, bihar eta etzi, 11:30etik 13:30era. Gaztelun ere udaletxean tramitatu ahalko da, bihar 17:00etatik 19:00etara, eta etzi 11:00etatik 14:00etara.

GIZARTEA ▶

Arantzazura joateko autobusa antolatu dute

Igande honetarako autobusa antolatu da Arantzazura joateko. Asteasun, Villabonan, Iruran, Anoetan eta Tolosan egingo ditu geldialdiak. Izena emateko 943 65 27 00 telefonora deitu behar da.

ANOETA-IRURA ▶

Autodefentsa ikastaroan izena emateko aukera

Autodefentsa ikastaroan izena eman nahi dutenek oraindik badute aukera. Hilaren 26a arte jo dezakete Irurako edo Anoetako udaletxeetara.

ANOETA ▶ GIZARTEA

«Proiektu txikitzailei» buruzko kanpaina burutzen ari da Segi

Gaur arratsaldean kafe tertulia egingo dute Gaztetxean

I. GARCIA

Anoetako Segi «Euskal Herrian burutzen ari diren proiektu txikitzaileen inguruko kanpaina» burutzen ari da. Honela, atzo arratsaldean proiektu horien inguruko panel erakusketa bat egin zuten, AHT,

2x2, Supersur, erraustegiak, Itoizko urtegia eta Izaikibelgo superportua haintzat hartuz. Ondoren, merienda bat egin zuten.

«Proiektu hauek guztiak sistema kapitalistan oinarrituak egonez, enpresa, banketxe eta estatuen interesetan oinarri-

tuak daudela salatu nahi dugu, herriari bizkar eman eta, aldi berean, ingurumenean izango duten inpaktu ikaragarria ahaztu gabe», azaldu dute Segi-koek.

Gaur ere izango da ekitaldirik. 16:00etan, kafe tertulia burutuko da Gaztetxean lehen aipatutako proiektuak haintzat hartuta. Ondoren, 19:00etan, gaztain jatea egongo da herriko plazan.

Bien bitartez, Segik bidalita-ko oharrean deialdia luzatzen dute bihar Bilbon AHTren aurka egingo den manifestazioarekin bat egiteko.

OSTALARITZA
GIDA
2006

Tolosaldeko eta Goierriko:

- Jatetxeak
- Erretegiak
- Pintxo tabernak
- Sagardotegiak

bilduko dituen gida.

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

17.000 aleko banaketa zabalda

Iragarkiak kontratatatzeko:
943 304 333
publi@iragari.net

Goierri **hitza**

Kontsu Taberna
OREXA
MENU BEREZIA
943 68 21 54

▶ **TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

Hartu hitza. Eztabaidak, inkestak, iritziak... Aukerak parte hartzeko webgunean.



**DAGOENEO ABIAN DA #118. PROIEKTUA.
FRAISORO ERAIKINA ZIZURKILEN.**

Inbertsioa 451.600 euro

Proiektu berria pertsona berezietzat, gure adinekoak, izan dezaketen atzerkizunak hobetuz izan dezaten. Aparteko Inbertsio Planaren barruan aurrera doan errealitate da. Yurramendi, Tolosaldeko Usabai Kroidegia, Leidor berria edo Rostesuko Ipuzmanua proiektua bezalako... Egunetik egunera errealitate bihurtzen ari zaren proiektuak dira.

**Aparteko Inbertsio Plana
Tolosaldean ere bai.**

Aparteko Inbertsio
Plana 2004-2007



Plan extraordinario
de vivienda 2004-2007



Udaltzaia Gero Aldekoa
Espartakortza eta Kaptakoa

TOLOSA ▶ ETXEBIZITZAK



Frontoiko harmailak jendez bete ziren. INIGO TERRADILLOS

Zozketarako itxaropentsu

Babes ofizialeko 44 etxebizitzaren zozketan jende mordo bildu da

MARTA SAN SEBASTIAN

Pilota partidari ez zen, baina Beotibar frontoia jendez lepo zegoen. Izan ere, Babes Ofizialeko 44 etxebizitza zozketatu zituzten atzo Tolosako Beotibar pilotalekuan. Itxaropenez bete- tuko ehundaka lagunek hartu zituzten atzo Beotibarrekoko harmailak.

940 laguneko izena eman eta 44 etxebizitza zozketan. Zenbakiak ez zetozen bat, eta bat baino gehiago etsita ageri zen: «Oso zaila da etxebizitza egokitzeta, jende asko gara eta aukerak murriztu egiten dira», zioen Unai Damianek, lehenengo aldiz zozketan parte hartzen zuen 27 urteko gazteak.

Isabel Garate eta Carmen Feijoo zozketan parte hartzen

iragarki laburrak ▶

LANA

Muntatzaileak. Leitzako enpresa batek pladur muntatzaileak edo ofizio ikasteko gogoia duten langileak behar ditu. Lana Leiza eta inguruan izango da. 699 65 95 26.

SALGAI

Lokala. Lokala salgai. Apaizerreka kalea (Ibarra), 35m². 36.000 euro. 639 72 42 60.
Egurra. Su egur lehorra salgai. Pagoa eta haritza. Telefona: 615 75 57 62 (arratsalde).

zuten bi emakume ziren. «Alabak izena eman du eta horregatik etorri naiz; etxebizitzaren egoera dagoen bezala izugarritzakoa litzateke gaur zortea izatea», zioten biek.

Etxebizitzak Oria-Araxes R-47 eremuan eraikiko dira, hau da, gaur egun Illarramendi frontoia dagoen eremuan, Las Korain Ikastolaren ondoan. 44 etxebizitza egingo dituzte, eta zozketan 2003. urtean 9.000 eurotik 33.100 eurora bitarteko diru-sarrerak izan dituzten pertsonak sartu dira.

Izena eman duten pertsona guztien artean bost talde egin dira, etxebizitzaren ezaugarrien arabera. Lehenik urri-tuentzako kupoa dago, alegia, gurgildun aukietan dauden pertsonentzat. Hiru pertsonen izena eman dute, eta etxebizitza bakarra zozketatu da. Guraso bakarrentzako kupoa 19k eman zuten izena, eta etxebizitza bat zozketatu dute. Familia ugarien kasuan ere, etxebizitza bakarra zozketatu dute onartutako lau zenbakien artean. 35 urtetik beherakoentzako kupoa, 31 etxebizitza zozketatu dituzte 698 lagunaren artean. Azkenik, kupo orokorra deitutakoa dago, eta onartutako 216 pertsonen artean 9 etxebizitza zozketatu dituzte.

Etxebizitzak 74,78m²-ko eta 116,51m²-ko azalera izango dute, eta prezioari dagokionez txikienek 111.570,82 euro balioko dute eta handiek, aldiz, 147.872,82 euro.

ALEGIA ▶ MUSIKA

Igandeko Txintxarri Eguneko gitara prest

Txintxarri eta Txintxarri Txiki abesbatzek kontzertua eta bazkaria egingo dituzte

M. SAN SEBASTIAN

Igandean egun handia izango dute Alegiako Txintxarri abesbatzek. 1998. urteaz geroztik, abesbatzan aritutakoei eskainitako eguna ospatzen dute, lagun zaharren omenez egindako eguna. Aurtengoan, Alegiako II. Kultur Astearen barnean antolatutako eguna izango da.

Joan Batailatzailearen Eli-zan 11:15eko Meza Nagusian parte hartuko dute, elizkizunaren hainbat unetan abes-tuz. Hala ere, ondoren euren kantak kantatuko dituzte Txintxarri Txiki eta Txintxarri abesbatzek. Ondoren, meza amaitu ostean, 12:00etan, kontzertua hasiko da elizan bertan. Lehenengo Txintxarri Txiki koruko haur eta gazteak ariko dira. 8 eta 16 urte bitarteko 40 abeslari hauek Idoia Iraolaren zuzendaritzapean lau kantu eskainiko dituzte. Txikienean ostean, helduei iritsiko zaie txanda. Txintxarri abesbatzako 25 kideak kantari ariko dira errepertorio zabalarekin. Gizonezkoek eta emakumezkoek osatutako ahots nahasiko korua da Txintxarri.

Kontzertuen ondoren, 14:30ean, Alegiko Txintxarri Jatetxean elkartuko dira de-

EGITARAUA ▶

TXINTXARRI ABESBATZA

'Porrusalda'. Kanta herrikoia da (*Ixil-ixilik dago, Kalian gora kalian behera...*).

Javi Bustoren armonizazioa.

'Erribera'. Benito Lerbundiren musika eta Lorenzo Ondarraren partitura.

'Zer dugun ikusi'. Tomas Garbizuren pieza.

'Azulao'. Jaime Ovalleren kantu brasildarra.

'Nahi zuya yin?'. Pablo Solozabalen kantua.

'Salio de Hamaica'.

Abesbatzako emakumeek soilik abestuko duten habanera.

'La bella Lola'. Abesbatzako gizonezkoek kantatuko dute bakarka habanera hau.

nak bazkarirako. 60 lagun inguruk eman dute izena, eta eguna giro onean pasatzea espero dute. Gainera, abesbatzako sortzaile izandako Joxe Gastesi alegiarra ere bertan izango da. 1991tik Garbiñe Orbezo da zuzendaria. Aurtengoan 45 urte bete dira Txintxarri abesbatza sortu zenetik, eta kideek adierazi dutenez, «beharbada Gabon inguruan ospakizunik izango da».

ALEGIA ▶ OSASUNA



Iaz ere odola ematera alegiar ugari joan zen. NOELIA LATABURU

Odol emaitzaren deialdia

M. San Sebastian ▶ Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak deialdia egin die alegiarrei. Gaur, Medikuen Etxean odola emateko aukera izango da, 19:00etatik 21:00etara. Iaz gazte ugari hurbildu zen, eta «oraingoan ere hala izatea» espero dute. Honez gain, aurretiaz odola eman dutenak zein lehen aldiz egingo dutenak daude deituta. Elkarteak azaldu dutenez, badira «odola ematen marka bete duten herriarrak»; hala nola, Joxe Mari Muruak 50 aldiz eman du odola, Milagros Plazaolak 40 aldiz eta Joxe Angel Arandia 25 aldiz. Jarrai dezagun eredu. N. LATABURU

ALEGIA ▶

Talogintza tailerra, Kultur Astea hasteko

II. Kultur Astea egingo dute herrian; asteburua ekitaldiz beterik dator

M. SAN SEBASTIAN

1981. urtean egin zuten estreinakoz Kultur Astea Alegian. 24 urteren ostean, ohitura onei eutsi eta berriz ere Kultur Astea egitea erabaki dute; bigarrena izango da, beraz. Larunbatean hasi eta ostirala bitarte, hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Lehen ekitaldia doako talogintza tailerra izango da larunbat goizean, eta igandean Txintxarri Eguna egingo dute herriko abesbatzen eskutik. Hala, aste osoa kultura munduan murgilduta igaroko dute alegiarrek.

ALEGIA ▶

'Gas naturala Interneten' mintegia

Gaur Alegiako Kzgunean mintegi berezia izango da; *Gas naturala Interneten* deituriko eskolak, hain zuzen ere. Horretarako tutorearen bisita izango da Alegian, 11:00etatik 13:00etara. Jarraipena izan duten hainbat mintegi egin dira herrian azkenaldian, guztiak ere Interneten baliogarritasuna azaltzekotan.

ALEGIA ▶

Eskolarteko XVIII. Mendi Lehiaketa

Igande honetan Eskolarteko XVIII. Mendi Lehiaketaren Finalistaren eguna egingo da Villabonan. Bertako Aizkardi Mendi Elkarteari egokitu zaio antolaketa, eta Alegiako eskolako lehiakideak ere bertan izango dira. Horretarako, eskolatik ohartarazi dutenez, «Alegiako partaideak San Juan Herri Eskolatik aterako dira, 08:00etan». Ondoren, Villabonako Errebote plazan bilduko dira ikasle guztiak, 09:00etan.

GUTUN@K ▶

Elkartasun Eguna 2005: mila esker denoi!

Pasa den hilaren 12an Ibarran antolatu genuen Presoen aldeko Elkartasun Egunean parte hartu eta Ibarrara hurbildu zituzten guztioi, esker mila!

Egun, Ibarako preso diren Eider, Ekaitz, Minde, Maite eta gainontzeko errepresaliatuen lagun taldeak, Ibarrara Herri Ekimenak, beste zenbait talde-

rekin elkarlanean, beren eta eskualdeko presoen aldeko Elkartasun Egun bat antolatu genuen, *Euskal Presoak Euskal Herrira, Estatus Politikoa Orain!* lelopean. Egun aproposa iruditu zitzaigun, kontuan hartuta asteburu presoen senideak eta lagunak bisitetara bidaiatu behar izaten dugula gure etxeokak 40 minutuz kristal hotz baten atzetik ikusteko, etxetik ehunka-milaka kilometro eginez, pairatzen ari diren dispersio politikaren ondorioz. Pertsonak izaki, zor zaien eskubide soil eta sinplea

exijitu nahi izan dugu egun honetan, ozen gainera. Eta, nola ez, preso politiko diren heinean, bizitzan ari garen fase itxaropentsu honetan, bere bizitzaren hainbat eta hainbat urte borrokari eskeintzen ari diren gizakiei parte hartzeko eskubidea aldarrikatu nahi izan dugu.

Bukatzeko, gure eskerrik beroenak honako elkartei: Sociedad Deportiva Ibarra, Xepela Kirol Elkarte, Sendi Ekintza, herriko hainbat merkataritza eta nekazarien laguntza, eskaini zituzten bazkari eta giro hona-

gatik, baita pintxo gozoak presatu zituztenei ere. Ezin ahaztu ondorengo hauen aportazio bikaina: Ibarako Gazte Asanblada, Haitzetan Raju, Zikloturista Taldea, Ibarako Udala, Ibarako Dantzariak, Mulambo taldea, bertsolariak, txistulariak, Ibarako Herri Kirol Taldea, DJ Bull eta egun atsegingarri bat igarotzen lagundu zuten orori. Esker mila!

MAIDER PEREZ ETA JON IJURKO
(IBARRAKO PRESOKI ETA ERREPRESALIATUEN LAGUN TALDEA ETA IBARRARA HERRI EKIMENA) ▶ IBARRA

IBARRA ▶ MUSIKA

Helena Orcoyenen kontzertua gaur San Bartolome elizan

Ana Iparragirre pianojolearekin eta Nerea Barriola sopranoarekin ariko da

IÑIGO TERRADILLOS

Helena Orcoyen ibartar sopranoak, Ana Iparragirre pianojolea, Ana Iparragirre pianojolea, Ana Iparragirre pianojolea, Ana Iparragirre pianojolea...

Ibartarra oso gazte zela hasi zen kantuan, zazpi urte zituela, hain zuzen ere; eta musika klasikorako eta, bereziki, kantu lirikorako gaitasun handia duela erakutsi du. Hainbat emanalditan eta txapelketetan parte hartua da, eta egun kantu ikasketak ari da egiten Donostiako Kontserbatorioan. Harekin pianoan ariko den Ana Iparragirre

billabonatarraren ibilbidea ere aipatzekoa da; Donostiako Goi Mailako Kontserbatorioan piano karrera amaituta, Loatzoko musika eskolan irakasle aritu da, eta hainbat abesbatzetan laguntzaile moduan. Euskaraz, italieraz, gaztelaniaz nahiz frantsesez kantaturiko obrak izango dira entzungai gaurko emanaldian: *Il Fer-*

vido Desiderio (Bellini), *De Vienna non tardar* (Las Bodas de Figaro, Mozart), *Barcarola* (J. E. Offenbach), *Cancion al arbol del olvido* (Alberto Ginastera), *Ec comi in lieta vesta* (Bellini), *Aurtzo polita* (Olaizola), *Chateaux Margaux* (Manuel F. Caballero), *Duo de las flores* (Lakme, Delibes) eta *Caro nome* (Giuseppe Verdi).

HELENA ORCOYEN ▶ SOPRANO

«Gaurkoa berezia da, gertukoek nire lana ezagutuko dutelako»

18 urteko ibartarrak txiki-txikitatutako musikarekiko zaletasuna, eta zaletasun hortaz bizitzera bere ametsak errealitate bilakatzea litzatekeela kontatu dio HITZARI. Zazpi urterekin musika klasikorako grina izan duzu. Zerk bultzatuta? Asko entzun izan dut txikitatik klasikoak, eta betidanik imitatzen saiatu naiz. Maria Callas entzuten nuen eta asko gustatzen zitzaidan. Eta etxean imitatzen saiatze-tik? Tolosako Hodeitruk Abesbatza (Xuxume lehen) hasi nintzen kantuan, eta aldi berean solfeo eta piano ikasketak egin nintuen. Ondoren, Amalia Iba-

ñez irakaslearekin hasi nintzen Ordiziako musika eskolan, eta urte mordo aritu naiz harekin Kontserbatorioan hasi aurretik. Valladoliden (Espainia) Nazioarteko Kantu Ikastaroetan ere aritu naiz bi urtez, 2001ean eta 2002an, eta 2003an Zaragozan (Espainia) egin zen Nazioarteko Musika Lehiaketan hartu nuen parte. Orain, Zentroen arteko Interpretazio Lehiaketan ari naiz, Kontserbatoriaren ordezkari. Saria ere irabazi dituzu. Iaz Probintziako Kantu Lehiaketan hartu nuen parte, eta Donostiako Kursaal aretoan egin zen Euskadiko Txapelketako finalera sailkatu nintzen Gintzako ordezkari bezala.



HITZA

Azkenean hirugarren geratu nintzen. Oso esperientzia polita izan zen. Emanaldi asko eskaini dituzu inguruan, eta orain zure etxean egingo duzu. Ibarren egitea proposatu zidaten, eta gogotsu hartu nuen. Oso berezia izango da niretzat, gertukoek nire lana ezagutzeko aukera izango baitute.

Zer behar du zure alorrean arrakastarekin topo egiteko? Kontaktu onak edukitzea oso garrantzitsua da. Nire kasuan, irakasleak harreman handia du jendearekin, eta bere bidez pixkanaka nire lekutxo egiten saiatu behar dut. Musikaz bizitzea da gehien gustatuko litzaidakeena, eta horretan saiatuko naiz, gogor lan eginez. ◀

IBARRA ▶

Berri Txarrak taldearen kontzertua Gaztetxean

‘Jaio. Musika. Hil’ izeneko disko berria aurkeztuko du taldeak 23:30ean

ERREDAKZIOA

Gaur gauean Berri Txarrak taldeak kontzertua eskainiko du Ibarako Gaztetxean, 23:30etik aurrera. Lekunberriko taldeak *Jaio. Musika. Hil* bere disko berria aurkeztuko du sarrera mugatuak izango dituen kontzertuan. Txartelak 5 euroen truke daude salgai aurrez, ohiko lekuetan. Irailaren azken astean kaleratu zuten Berri Txarrak-ekoek beren azken diskoa, 12 kantuz osatutakoa eta Deabruak Teilatuetan taldeko Aritzen partaidetzarekin. *Oreka* izeneko abestiarekin aurkeztu dute diskoa.

TELEFONOAK ▶

larrialdia ((112))
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibaralde. Osasun etxea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Orea. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gemikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroiko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ lurramendi goitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 21a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO EGURALDIA



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Gaztelu. EHNA tramitatzeko aukera, udalekean. Bihar, 17:00etatik 19:00etara; etzi, 11:00etatik 14:00etara.

Tolosa. Irazki elkarte kulturantzak Aiako Harrietara irteera antolatuta du etzi. Izen-ematea 678 63 83 94an.

Tolosa. Ipuinartean I jardunaldiaren, Idoia Sanchez eta May Gorostiaga ipuin kontalari tolosarrak ariko dira Irtxo tabernan, 22:00etan.

Tolosa. Palestina beste ikuspuntu batetik hitzaldia eta diapositiba proiektzioa. Komite Internazionalistekako Livan Sorianoaren eskutik. 19:30ean, Kultur Etxean.

Tolosaldea. Eusko Jaurilaritza: AHT gelditu! Inposaketarik ez! lelopean bihar Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatuta du Tolosaldea AHT Gelditu!

Elkarlanak. Triangulotik aterako da, 15:30ean. Izen-ematea Tolosako Rakun eta Mescalen, Alegiako Iskiñan, Villabonako Irtzarren eta Anoetako Itzulin, 7 eurotan.

Villabona. EHNA tramitatzeko aukera, Kultur Etxean. Bihar, 18:00etatik 20:00etara; etzi, 12:00etatik 14:00etara.

Zizkurkil. EHNA tramitatzeko aukera, udalekean. Bihar eta etzi, 11:30etik 13:30era.



Berri Txarrak, Gaztetxean

IBARRA ▶ Berri Txarrak taldeak zuzeneko emanaldia eskainiko du gaur Ibarrauko Gaztetxean, 23:30ean. *Jaio. Musika.* *Hil* kaleratu berri duten beren bosgarren diskoa aurkezteko igoko dira taula gainera. Sarrerak, 5 eurotan. KARLOS OSINAGA

KIROLAK

(Artexe-Garmendia; nagusiak). 20:00, Arrate.

GAUR

BIHAR

Areto futbol.

▶ Laskorain-Altzakoak (Emakumezkoen Senior Maila). 21:45, Illarramendi.
▶ Eraso-Cash Converters (2. Maila A). 10:30, Donibane.

Areto futbol.

▶ Majadahonda-Hegoalde (Emakumezkoen Ohorezko Maila). 18:00, Granadilla.
▶ Ibarra-Uitzama (Nazional Maila A). 18:30, Belabieta.
▶ Laskorain-Ceramicas Nogaes (Nazional Maila B). 16:00, Usabal.
▶ Santurtzi-Ibarra (Jubenilen Nazional Maila). 16:10, Santurtzi.
▶ Transp. Lakuntza-Zarautz (1. Maila A). 18:30, Olaederra.
▶ Eskolapioak-Plaza Berri Sport (2. Maila A). 17:00, Eskolap.
▶ Denak taberna-Orioko tabernak B (3. Maila A). 16:00, Belabieta.
▶ Anoetako Gazte Asanblada-Laskorain (3. Maila B). 16:30, Uzturpe.
▶ Eskolapioak-Idiazabal (Jubenilen Maila). 10:00, Eskolapioak.
▶ Urnieta-Cash Converters (Jubenilak). 16:00, Urnieta.
▶ Eskoriatza-Hirukide Eskolapioak (Jubenilen Maila). 11:00, Eskoriatza.

Pilota.

▶ Zazpi-Isturri-Beharzana (Nagusiak). 21:00, Amezketeta.
▶ Zazpi-Isturri-Txapagain (Gazteak). 21:00, Amezketeta.
▶ Zazpi-Isturri 2-Anaitasuna; (Gazteak). 21:00, Amezketeta.
▶ Aurrera-Saiatz-Zazpi-Isturri (1. Maila). 20:15, Beotibar.
▶ Aurrera-Saiatz 1-Andazpe (Unai Aspe-Ruben Zapirain; nagusien 2. Maila). 20:15, Beotibar.
▶ Tartaloetxe-Aurrera-Saiatz 1- (Axier Telleria-Ion Orbegozo; nagusien 3. Maila). 20:00, Zegama.

Zesta-punta.

▶ Beotibar 1-Zumaia 1 (Trabanzos-Rezola; nagusiak). 20:00, Santa Luzia.
▶ Gazteleku 1-Beotibar 2

Futbola.

▶ Gebxo-Tolosa (3. Maila). 17:00, Fadura.
▶ Danena-Intxaurren (Lurraldekako 1. Maila). 16:30, Elbarrena.
▶ Amaro-Munibe (Lurrald. 2. Maila). 17:45, Usabal.
▶ Intxurre-La Salle (Lurrald. 2. Maila). 16:30, Elorri.
▶ Kostkas-Billabona (Jubenilen 1. Maila). 16:00, Matigoxotegi.
▶ Tolosa-Idiazabal (Jubenilen 1. Maila). 15:30, Usabal.
▶ Intxurre-Segura (Jubenilen 1. Maila). 16:30, Elorri.
▶ Tolosa-San Ignacio (Jub. Naz. Maila). 16:30, Berazubi.

(Lurraldekako 2. Maila).

17:00, Berio.
▶ Tolosa-Urnieta (Nesken Liga). 11:00, Usabal.

Futbol 7.

▶ C. Industrias-La Kabutzia (1. Maila A). 12:00, Beasain 1.
▶ P. Urkatx-Caravanas Tolosa (3. Maila D). 13:00, Beasain 2.

Pilota.

▶ Eibar-Aurrera-Saiatz (Aratz Irazusta-Iñaki Errazkin; gazteen 2. Maila). 11:15, Ipurua.

Zesta-punta.

▶ Donostia Jai Alai 2-Beotibar 1 (Mujika-Telleria; kadeteak). 11:30, Carmelo Balda.

MUSIKA

Tolosa. Señor No eta Elekrik Roders. 22:30ean, Bonberenean.

Tolosa. Adn Fuzz afrikar perkusio ikuskizuna, DJ Talo eta Aritz Sound System. 23:00an hasita, San Estebango auzo elkartean. Kultur Astean.

Ibarra. Helena Orkoyenen kontzertu lirikoak. 20:15ean, San Bartolome elizan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Morant, M. Zaballareta, 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irrateria

(107.5 eta 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* 11:00etan eguraldia Joxe Landarekin; Hitzaren errepasoa, oharrak... 12:15ean, agenda; elkarriketak, iritzia, albisteak...; 13:00etan, *Ezkatuko kaloreak* irrati nobela; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa.*
22:00-23:00. *Arkako Show* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan eta lirtzen erantzukizunik.

HITZA,
zorian agurren
tarteak

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

Mesedez, argazkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila esker!

MUNDU OSOKO ERITIMOAK ESKU-ESKURA
SUSTRAIER BLAI 2005

MUNDU KULTUREN 4. TOPKETA
GOETXI-GIPUZKOI ELIZA HERRIA

Ormaiztegiako frontoian
urriaren
22an
hasieratik
22:30etan
12 €

AMPARO Y SUS MUCHACHOS DE AMPARANOIA

JAVI P3Z ORQUESTA

KUKUMA + SAMAR

EHUNZANGO BATUKADA + DJ. TALO
KARIBERAKO BIDAIA BATEN ZOKKETA!!!